

Fundación **BBVA**

**IX. Musika Garaikideko  
Konzertu Zikloa**

**Bilbao**  
2018-2019

# PluralEnsemble

Fundación BBVA  
**San Nikolas Eraikina**  
Bilbao

2018  
**ABE**  
**18**



## BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioaren ezaugarria da ezagutza zientifikoa eta sorkuntza kulturala sustatzea, eta bere musika-programa ibilaldi gisa antolatu du, gizarateak artearen adierazpen horretaz gozatzeko eta haren onurak sentitzeko dituen forma guztiak kontuan hartuta. Horrela, obra berrien sorrera bultzatzen du konposizio-enkarguen bidez, eta horiek gordetzen eta zabaltzen laguntzen du, punta-puntako diskoetxe eta musikariek lankidetzan egindako grabaketen bitartez. Zuzeneko musika sustatzen du urtero, doako kontzertuzikloak antolatuta. Horiei esker, errepertorio garaikidean erreferentziakoak diren talde eta bakarlarietaz gozatzeko aukera eskaintzen dio jendeari. Konferentzia-zikloak antolatzen ditu eta argitalpenak editatzen ditu, zenbait egileren lana hobeto ulertzeko edo garai jakin batzuetako konposizioaren ikerlanean murgiltzeko. Musikari gazteen prestakuntza ahalbidetzen du,

Madrilgo Erkidegoko Orkestra eta Abesbatzarekin eta Reina Sofía Musikako Goi Eskolarekin batera garatutako programen bidez, eta ikerketako, musika-ondarea berreskuratzeko eta sorkuntzako proiektu guztiz berritzaileak gauzatzen ditu, Musika eta Operako Leonardo beken bidez.

Sinposioak antolatzen ditu orkestrakudeaketari buruz, herrialde guztiko musika- eta antzerki-taldeekin elkarlanean aritzen da (Teatro Real antzokia, Teatro de la Maestranza antzokia, Gran Teatro del Liceo antzokia, Madrilgo Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operazaleen Elkarte, besteak beste), lehen mailako kontzertuak eta opera-programak antolatuz, eta bikaintasuna saritzen du Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkartearen eta BBVA Fundazioaren Konposizio Sariaren eta BBVA Fundazioaren Musika eta Operako Eza-gutzaren Mugen Sariaren bidez.

Fundación **BBVA**

## Interpreteak

### PluralEnsemble

Lope Morales, flauta  
Antonio Lapaz, klarinetea  
Duncan Gifford, pianoa  
Jaime Fernández, perkusioa  
Ema Alexeeva, biolina  
Ana María Alonso, biola  
Salvador Bolón, biolontxelo

**Jürg Henneberger**, zuzendaria

## Egitaraua

### LEHEN ZATIA

**Jacques Wildberger** (1922-2006)  
*Cuarteto para flauta, clarinete, violín  
y violonchelo*

**Kaija Saariaho\*** (1952)  
*Serenatas*

**Martin Jaggi** (1978)  
*Spam*

### BIGARREN ZATIA

**Michael Jarrell** (1958)  
*Assonance lb*

**Lukas Langlotz** (1971)  
*Ohne Titel II. Hommage*

\* BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean 2017

## Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

# Programarako oharrak

Zuzendari helvetiar batek zuzendutako kontzertu honetan, Suitzako musika modernora hurbiltzeko aukera dugu, hori bai, musika-konposizioaren egungo ordezkari entzutetsuenetako baten obrarekin uztartuta: Kaija Saariaho konpositorea, BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Musika Garaikidean Sariaren azken irabazlea.

Esan bezala, Saariaho ez da suitzarra, finlandiarra baizik, eta Frantzia eman du urtearen zatirik handiena. Hori bai, Saariahok oso eragin handia du gaur egungo musikaren gainean, eta ez da inkongruentea finlandiarraren lanak edozein eskola zehatzekoekin inguratzea: beti aurkitu ahal izango ditugu programa indartuko duten arrasto, eragin edo kontrasteak.

XX. eta XXI. mendeetako Suitzako musika ez da agian beste Europako eskola batzuetakoa bezain ezaguna, baina horrek ez du esan nahi garrantzitsua ez denik. Horren erakusle, etengabeko presentzia mantendu du nazioartean. Ez hori bakarrik, ezin dugu ahaztu ere gaur egun Vienatik musika-konposizio eta -zuzendaritzaren gaineko bere maisutasuna munduratzan duen Beat Furrer handia izatez suitzarra dela. Hori bai, Suitzako musika modernoaren historia posterromantizismoan bertan abiatzen da Ernest Bloch konpositorearen eskutik, eta Émile Jaques-Dalcroze maisuaren hezkuntza-lana ere ez dago ahazte-

rik. Los Seis taldeko Arthur Honegger entzutetsuak ere suitzar nazionalitatea zuen, Frantzia jaio bazen ere. Frank Martin, Heinrich Sutermeister edo Othmar Schoeck bezalako musikagileak ahazterik ere ez dago. Eta jada serialismoan barneratuta, Klaus Huber edo Heinz Holliger bezalako musikariak ekarpena oso garrantzitsua izan da.

Hain zuzen ere, gaurko kontzertua serialismo helvetiarraren klasikoetako batenkin hasiko dugu: Jacques Wildberger. Wildberger 1922an jaio zen Basilean eta 2006an hil zen. Wildberger jatorri errusiarreko beste musikagile suitzar handi baten dizipulu izan zen: Wladimir Vogel. Hasiera batean Karlsruhe irakasle izan zen Wildberger, eta, Berlinen egonaldia egin ostean, bere ibilbide ia guztia Basilea jaioterrian garatu zuen konposizio-irakasle gisa. Vogel maisuaren eskutik jaso zituen teknika dodekafonikoaren oinarriak eta bere ibilbide sortzaile oparoan zehar ez zituen inoiz alboratu; hori bai, Darmstadtoko Eskolako lehen maisuaren eragina jaso ostean, serialismoaren ikuspegi zabalagoa garatu zuen. Wildbergerren lanen artean, honako hauek sona handia lortu zuten: hari laukotearentzat konposatutako *Commiato*, *Ganbara Kontzertua*, *Tre mutazioni* eta *Epitaphe pour Évariste Galois*. Gaurko kontzertuko programan jasotako lana, berriz, *Flauta, klarinete, biolin eta biolontxelorako laukotea* da. Nahiko lan goiztiarra dela esan daite-

ke, 1952an konposatutakoa baita, eta sarrera eta bariazioez osatutako konposizio banak osatzen dute. Sortu zen urte berean estreinatu zen Darmstadt, eta obra kanonikoki dodekafonikoa da, serialista gazteen kezka berriak kontuan hartzen saiatzen dena.

Martin Jaggirekin, berriz, belaunaldi-aldaketa nabarmena emango dugu, Wildberger bera bezala Basilean jaio bazen ere, mende erdi pasa geroago jaio baitzen: 1978an. Biolontxelo-ikasketak egin zituen lehenik, eta, gero, konposizio-ikasketak bere aitaren aginduetara: Rudolf Jaggi musikagilea. Aitarekin batera, Rudolf Kelterborn, Detlev Müller-Siemens edo Helmut Lachenmann izan zituen konposizio-irakasle. Biolontxelo bakarlari gisa aritu ohi da, eta Ensemble Phoenix Basel eta Basel Sinfonietta taldeetako kide ere bada. Konpositore gisa, berriz, sari eta lan-eskaera ugari jaso ditu, bereziki Suitzan.

Jaggiren estiloa soinu-adierazpena garatzeko bitarteko instrumental berriak bilatzen dituen abangoardiaren irakaspenetan kokatzen da, hala, berdin-berdin da gai zaratak zein denboran etendako notak erabiltzeko. *Spam* 2006an Ensemble für Neue Musik Zürich taldearen enkarguz idatzitako obra da, urte bereko abenduan Zurich bertan estreinatutakoa. Flauta baxu, klarinete baxu, piano, perkusio, biolin eta biolontxelorako sortutako obra da.

Kontzertuko hirugarren protagonista, Lukas Langlotz, Jaggi bera baino zertxobait zaharragoa da, aurreko belaunaldi bateko kidea denik osoki esaterik ez badago ere. Hori bai, arlo batzuetan agerikoak dira bien arteko ezberdintasunak. Langlotz bera ere Basilean jaio zen, 1971n. Nagusiki piano-ikasketak egin zituen, eta, konposizioaren arloan, Rudolf Kelterborn izan zuen maisu. Betsy Jolasen eskutik ere jaso zituen eskolak Parisen eta Ircamen ere aritu zen. Horrez gain, orkestra-zuzendaritzako ikasketak ere egin ditu, eta, hala, egun ohikoa da Langlotz zuzendari gisa ikustea. Zenbait sari eta lan-eskaera jaso ditu Suitzako erakundeen eskutik, eta bere herrialdean ospea lortu duela esan daiteke. Gaur egun Basileako Musikako Goi Eskolako irakaslea da. *Ohne Titel II. Hommage* (Titulorik gabe II. Omenaldia) obra 2008 eta 2009 artean idatzitako sestetoa da, izen berearekin baina I zenbakiarekin 2007an hirukoterako idatzitako lanarekin irekitako bidea jarraitzen duena. Gaurkoan entzungo dugun obra, berriz, flauta, klarinete, perkusio, piano, biolin eta biolontxelorako da. Obra piano birtuoso batetik jaiotzen da, eta, jarraian, gainerako material guztia horren inguruan antolatzen da. Hori bai, marimba teklatuari emandako erantzun gisa ulertzen da. Konposizioa sarrera batek eta luzera ezberdineko 26 zati konbinagarrik osatzen dute, guztiak ere bostunen zikloaren inguruan an-

tolatutakoak. Langlotzek miresten duen zinema-zuzendari baten omenez egindako obra da, musikariak nori eskainitakoa den ezagutarazterik nahi ez duen arren. Langlotzek konposizioa nolabaiteko obsesio gisa ulertzen due-la esan izan du.

Gaurko azken konpositore suitzarra Michael Jarrell da, Europa guztira hedatu den obrarekin bere herrialdeko gaur egungo musikaren erreferente den sortzailea. Gaurko programako beste hiru suitzarrak ez bezala, Jarrell Genevako da; 1958an jaio zen bertan eta Éric Gaudibert izan zuen maisu. Tanglewooden eta Friburgen ere egin ditu ikasketak, azken hiri horretan Klaus Huber maisuaren eskutik. Horrez gain, Ircamekin kolaboratu izan du. Jarrellen obra genero guztietara gerturatzen da, baita operara ere. Horren erakusle da Genevako Antzoki Handiak enkargatutako *Galilei* opera, arrakasta handiz estreinatutakoa. Hori bai, batik bat gaber-musikaren arloan erakutsi du bere maisutasuna Jarrellek. Horren erakusle da 1983an abiatutako *Assonance* seriea; bertako lehen lana klarinete bakarlarirako sortu zuen, eta, ordutik hona, talde oso ezberdinentzat pentsatutako bederatzi obratan garatu du seriea.

*Assonance Ib* 2014n Suitzako Cullyko Jaialdi Klasikorako sortutako pieza bat da, urte horretako ekainaren 29an estreinatutakoa. Klarinete eta hari-

hirukoterako idatzita dago. Klarineteak instrumentu nagusi gisa jokatzeko du, eta, hari-hirukoteak, berriz, akonpainamendu gisa; hori bai, azkenerako, laukote berezi horretako lau kideen arteko material-truke bilakatzen da obra.

Egile suitzarra ez duen programako konposizio bakarra garrantzi handiko gaur egungo musikagile batena da: Kaija Saariaho finlandiarra. Wildbergerrenaren eta Jaggi eta Langlotzenaren artean kokatutako belaunaldi bateko kideztat jo daiteke musikari finlandiarra. Izan ere, 1952. urtean jaio zen, Helsinkin. Finlandiako hiriburuan bertan Paavo Heininen maisuaren aginduetara ikasi zuen, eta, Friburgen, Brian Ferneyhough eta Klaus Huber izan zituen irakasle. Parisen ere egin zituen ikasketak, eta, hain zuzen ere, bertan Ircamekin izandako harremanak musika instrumentala eta musika elektronikoa uztartzera eramane zuen; hala, bi arloko elkarrekin jorratu ohi ditu.

Saariahoren musika instrumentalak soinuaren pixkanakako eraldaketa etengabea du ardatz, *Nymphéa* kuartetoak edo orkestrarako idatzitako *Notes of Light* edo *Laterna Magica* lanek ondo erakusten duten bezala. Operaren mundua ere jorratu du Saariahok, baita arrakasta handia lortu ere, 2000. urteko *L'amour de loin* lanarekin batik bat. *Adriana Mater* (2006) eta *Emilie* (2010) operak ere egin ditu, beti Amin



Maalouf idazlearen libretoekin eta Peter Sellars zuzendariaren eszenaraztearekin. Operarako egin duen azken ekoizpena, berriz, 2016. urteko *Only the Sound Remains* da, Sellarsen beraren eskutik berriro ere. Hori bai, aipatu beharra dago Japoniako *noh* antzerkiko bi piezetan oinarritutako opera dela. Saariahok nazioarteko sari garrantzitsuenak lortu ditu, besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetako Grawemeyer Award, Prix Italia, Suediako Polar Music Prize eta Espainiako BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria.

*Serenatas* Saariahok 2008an piano, biolontxelo eta perkusiorako konposatutako obra bat da. Bost piezak osatzen dute obra eta instrumentistek eurek hautatutako ordenan jotzen dira. Honako hauek dira piezon izeak: *Agitato*, *Delicato*, *Dolce*, *Languido* eta *Misterioso*. Egileak berak azaldu-takoaren arabera, *Notes on Light* edo *Mirage* bezalako aurreko konposizioetan jada presente ziren ideiak jorratzen ditu bertan. Hori bai, ideiek testuinguru berri batean garatuz, batzuetan otzanak eta besteetan oinazetsuak diren klimak sortzen dituen abiapuntu emozional bat oinarri. Hori horrela, interpretatzaileek euren arreta osoa, debozio osoa, jarri beharra dute bene-benetako maitemindu-serenata bat eskaintzeko.

Tomás Marco

## PluralEnsemble



XX. eta XXI. mendeetako musikan espezializatutako talde instrumentala da, taldeko zuzendari titullarrak, Fabián Panisellok, sortutakoa. Beti interpretazio-kalitate handiena bilatuz, urtero kontzertuak eta birak egiten ditu denboraldi batez, bakarlarientzako erreperitorio zailenak eta talde-obrak uztartuta.

Hamargarren urtez jarraian Musika Garaikideko BBVA Fundazioaren kontzertu-zikloa antolatu du Madrilgo Auditorio Nacional de Músican, baita BBVA Fundazioaren Bakarlarien Zikloa ere, BBVA Fundazioaren Madrilgo egoitza den Marqués de Salamanca Jauregian. Bira nazionalak eta nazioartekoak egin ohi ditu.

Bere ibilbidean, kritika bikainak eta entzuleen erantzun paregabea erdie-tsi ditu parte hartu duen nazioarteko jaialdi espezializatu nagusietan, besteak beste, hauetan: Shanghaiko New Music Week, San Petersburgoko Sound Ways International New Music Festival, Estrasburgoko Musica, Caracasko Atempo, Parisko Présences, Bruselako Ars Musica, Nizako MANCA, Cagliariko Spaziomusica, Salzburgoko Aspekte, New Yorkeko IFCP Mannes, Alacanteko Festival de Música, Donostiako Musika Hamabostaldia, Koloniako WDR zikloa,

Bartzelonako Auditoriko Nous Sons, Varsoviako Festival de Otoño, Berlingo Konzerthauseko Ultraschall eta Tirologo Klangspuren Schwaz.

Artista ugarirekin jarduten du lankidetzan, hala nola honako hauekin: Peter Eötvös, Salome Kammer, Hilary Summers, Cristóbal Halffter, Marco Blaauw, Jörg Widmann, Dimitri Vassilakis, Nicholas Isherwood, Alda Caiello, Allison Bell, José Manuel López López, Siegfried Mauser, Jörg Widmann, Wolfgang Lischke, Christian Baldini, Nicolas Altstaedt, Zsolt Nagy, César Camarero, Jón Ketilsson, Pablo Márquez, Charlotte Hellekant, Matthias Pintscher, Hansjörg Schellenberger, Tadeusz Wielecki, Lorraine Vaillancourt, Marco Angius, Natalia Zagorinskaya, Péter Csaba, Johannes Kalitzke, Luis de Pablo edo Toshio Hosokawa.

Europako hainbat irratikatatara ere grabazio ugari egin ditu (WDR, RBB, RNE, RF, ORF, RTBF edo Poloniako Irratia), eta disko-grabazioak ere egin ditu zenbat diskoetxetarako (col legno, Verso, Cervantes eta NEOS, adibidez).

## Jürg Henneberger



Luzernan (Suitza) jaio zen, 1957an. Basileako Musika Akademian egin zituen ikasketak, Jürg Wyttenbach irakaslearekin, baita Hanburgoko Hochschule für Musik und Theateren ere, Klauspeter Seibel eta Christoph von Dohnányi irakasleekin. Oso goiz bere izena musika garaikideko espezialista bezala indarra hartzen hasi zen, eta, horri esker, musika garaikideko hainbat ensemble zuzentzeko aukera izan zuen. Azkenean, bere talde propioa sortu zuen: Ensemble Phoenix Basel. Musikari talde aparta bilduta, bere ideiak behar bezala praktikara eramateko aukera izan zuen.

Horrez gain, erreperitorio garaikideko opera-ekoizpen handien zuzendari artistiko gisa jarduteko ere mundu osotik jasotzen ditu eskaerak Hennebergerrek. Operaren munduan, besteak beste, Mauricio Kagelen *Aus Deutschland* eta Bruno Madernaren *Satyricon* operetan lan egin du, Herbert Wernickeren zuzendaritzapean, Veneziako La Fenice antzokian. Christoph Marthaler maisuak zuzendutako *The Unanswered Question* eta *20th Century Blues* ekoizpenetan, eta Bernd Alois Zimmermannen *Die Soldaten* operaren Suitzako estreinaldian parte hartu du. 2002an, berriz, Alban Bergen

*Lulu* zuzendu zuen Hannoverreko Staatstheateren.

Basileako Hochschule für Musiken irakaslea da 1989tik, eta Partitura interpretazioko, Ganbera musikako eta Musika garaikidearen interpretazioko eskolak ematen ditu. Gainera, 1998az geroztik Basileako International Society for Contemporary Musiceko lehendakaria da.



# Hurrengo kontzertuak

---

## **Musika Garaikideko IX. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa**

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2019 | 01 | 15

**Simone Beneventi (perkusioa)**

**Andrea Rebaudengo (pianoa)**

Ivan Fedele, Georges Aperghis eta Conlon Nancarrow-en lanak

2019 | 02 | 12

**Insomnio**

**Ulrich Pöhl (zuzendaria)**

Félix Ibarondo, Gabriel Erkoreka, Jukka Tiensuu eta Pierre Boulez-en lanak

2019 | 03 | 12

**Musicatreize (ahots taldea)**

**Roland Hayrabedian (zuzendaria)**

Alberto Posadas eta Gérard Grisey-ren lanak

2019 | 04 | 2

**Neopercusión**

**Juanjo Guillem (zuzendaria)**

Francesco Filidei, Simon Steen-Andersen, Elena Rykova, Gabriel Erkoreka eta José María Sánchez-Verdú-ren lanak

2019 | 04 | 30

**Ensemble Kuraia**

**Andrea Cazzaniga (zuzendaria)**

Georg Friedrich Haas, Liza Lim, Mauricio Kagel, Jorge Fernández Guerra, Michael Daugherty eta Jagoba Astiazaran-en lanak (BBVA Fundazioaren enkargua)

---

## **Zikloz kanpoko kontzertua**

2019 | 02 | 28

**Liudmila Georgievskaya (pianoa)**

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

Swiss Arts Council Pro Helvetiaren laguntzarekin

Lege-gordailua: BI-1952-2018

